



## **Idazkaritza-Kontuhartzaileta**

**2020/02/25ean EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA.**

**SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 25/02/2020.**

### BERTARATUAK- ASISTENTES

#### Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

#### Zinegotziak

Maite Uribe Beristain  
Antonio Regaño Sájeras  
Josu Ezkurdia Santamaría  
Ana Belén de Castro Ramos  
Eluska Irazu Henández  
Nestor Arana Arexolaleiba  
Dorleta Sologaistoa Aguiriano  
Ander Errarte del Pozo  
Iñaki Kerejeta Gorostiza

#### Idazkaria

Edurne Iturbe Laskurain

Eskoriatzan, 2020ko otsailaren 25ean, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla, bildu da Ohiko Udalbatza, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri María Purificación Regidor.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 25 de febrero de 2020 , en el quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ohikoa bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste María Purificación Regidor.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAABA6B2.HuA4>

**2020/02/25  
Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno ordinario**



## **Idazkaritza-Kontuhartzaileta**

### **1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

Ondorengo egunetan egindako osoko bilkuretako aktak onartu dira: 2019-11-26, 2019-12-17 eta 2020-01-27.

### **2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.**

2020ko otsailaren 18ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman da.

Berariaz eman da onartutako 27/2019 eta 1/2020 kreditu aldaketa espedienteen berri.

### **3.- UDAL LANGILEEN ORDAINSARIAK IGOTZEARI BURUZKO ERABAKIA.**

Sektore publikoaren eremuko lansarien arloan presako neurriak onartzen dituen urtarilaren 21eko 2/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren 3. artikuluan jasotakoaren babesean, Udalbatzarrak, Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

1. 2020ko urtarilaren 1etik aurrerako eraginarekin onartzea Udal honen zerbitzura dauden langileen ordainsarien % 2ko igoera 2019ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariekin.
2. Igoera horiek martxoko nominan ordaintzea.

### **4.- 2020-RAKO ARAUDI PLANA ONARTZEA.**

39/2015 Legearen 132. artikuluan jasotakoa betez, Udal honek 2020an onartzea edo funtsean aldatzea aurreikusten dituen ordenantzen edota erregelamenduen zerrenda honako hau da:

- URAREN ZIKLO OSOAREN ZERBITZUA ARAUTZEKO ESKORIATZAKO UDALAREN ORDENANTZA

Ordenanza honen bidez Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren eta ur zerbitzura abonatutako pertsonen arteko harremanak arautzea nahi da Gipuzkoako Ur Kontsortzioa zerbitzuaren titularra den udaletan, alderdi bakoitzaren oinarrizko eskubideak eta betebeharrauk adierazita.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAABA6B2.HuA4>

**2020/02/25  
Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno ordinario**



## **Idazkaritza-Kontuhartzaileta**

### **5.- ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK ZAINTEKO ETA MANTENTZEKO ZERBITZUA (DERRIGORREZKO ZERBITZUAK ETA AUKERAKO ZERBITZUAK) EMATEKO 2015eko KONTRATUARI ERANTZUTEKO AURKEZTUTAKO ABALA ITZULTZEA.**

COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES SA eta ELAI SERBITZUAK SL enpresek aldi baterako osatutako elkartea Caja Rural de Navarra basketxeak emandako abala jarri zuen 2014/12/23an. Abal hori ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK zaintzeko eta mantentzeko zerbitzua (derrigorrezko zerbitzuak eta aukerako zerbitzuak) emateko Udalbatzarrak 2015eko urtarrilaren 27an hartutako erabakiz esleitutako kontratutik sortutako betebeharrauk zuzen beteko ziren berme bezala jarri zen

Abal hori kitatzeko baimena eskatu zuen empresa elkartea 2019/10/22an.

Udal zerbitzu teknikoek egindako txostena ikusita, eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Caja Rural de Navarra basketxeak COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES SA eta ELAI SERBITZUAK SL enpresen alde emandako 5.339,56 euroko abalaren kitapena baimentzea. Abala ESKORIATZAKO BERDEGUNEAK, PARKEAK, LORATEGIAK ETA PASEALEKUETAKO ZUHAITZAK zaintzeko eta mantentzeko zerbitzua (derrigorrezko zerbitzuak eta aukerako zerbitzuak) emateko kontratutik sortutako betebeharrauk zuzen beteko ziren berme bezala jarri zen.

**Bigarrena.-** Aipatutako abalaren originala interesdunari ematea abalaren kitapena izapidetu dezan.

### **6.- ESKORIATZAKO KALEAK GARBITZEKO 2015eko KONTRATUARI ERANTZUTEKO AURKEZTUTAKO ABALA ITZULTZEA.**

COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PUBLICOS AUXILIARES SA eta ANSERO SANEAMIENTOS Y SERVICIOS SA enpresek aldi baterako osatutako elkartea Caja Rural de Navarra basketxeak emandako abala jarri zuen 2014/11/25ean. Abal hori Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua emateko Udalbatzarrak 2014ko abenduaren 9an hartutako erabakiz esleitutako kontratutik sortutako betebeharrauk zuzen beteko ziren berme bezala jarri zen.

Abal hori kitatzeko baimena eskatu zuen empresa elkartea 2019/10/22an.

Udal zerbitzu teknikoek egindako txostena ikusita, eta Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAABA6B2.HuA4>

**2020/02/25  
Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno ordinario**



## **Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

**Lehenengoa.**- Caja Rural Navarra banketxeak CESPA COMPAÑIA ESPAÑOLA DE SERVICIOS

AUXILIARES SA eta ANSERO SANEAMIENTOS Y SERVICIOS SA enpresen alde emandako 4.336,17 euroko abalaren kitapena baimentzea. Abala Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua emateko kontratutik sortutako betebeharrak zuzen beteko ziren berme bezala jarri zen.

**Bigarrena.**- Aipatutako abalaren originala interesdunari ematea abalaren kitapena izapidetu dezan.

### **7.- ALKATE JAUNARI AHALMENA EMATEA PROMOCIONES ESKORIATZA S.A.-k UDALARI LAGA BEHARREKO LOKALAK ONARTZEKO. LOKALOK ESKORIATZAKO II-2 SEKTOREKO “G” LURZATIAN DAGOEN ERAKINEAN DAUDE.**

Pertsonal eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

“Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jaunari ahalmena ematea, Eskoriatzako Udalaren izenean eta hura ordezkatuz, Udalak ezarritako urbanizazio kargak betetzeko Promociones Eskoriatza S.A. enpresak Eskoriatzako Udalari eman behar dizkion lokalak onartu eta eskritura publikoak egiteko, bai eta erabakitakoa gauzatzeko beharrezkoak diren gainerako dokumentu guztiak ere”.

Udalari lagatako lokala honako hau da:

*HOGEITA BOSGARREN LOKALA: Behe-solairuan dagoen merkataritza lokala, Intxaurtxueta auzoko bat eta bi edo hogeita hamaseigarren eta hogeita hamazazpigarren zenbakiko eskapeen ezkerrean eta eskuinean. 440,00 m<sup>2</sup>-ko azalera eraikia du. Honako mugak ditu: iparraldetik, erabilera pribatuko berdegunearekin eta garajeen solairurako arrapalarekin; hegoaldetik, eraikinaren aurrealdeko arkupearekin eta ur, argindar eta gas kontagailuen gelarekin, igogailuekin eta Intxaurtxueta auzoko bat edo hogeita hamaseigarren eta bi edo hogeita hamazazpigarren eskapeekin eta eskepeetako eskailerekin; ekialdetik, erabilera publikoko berdegunearekin eta ur, argindar eta gas kontagailuen gelarekin, igogailuekin eta Intxaurtxueta auzoko bat edo hogeita hamaseigarren eta bi edo hogeita hamazazpigarren eskapeekin eta eskepeetako eskailerekin; eta, mendebaldetik, hogeita laugarren merkataritza-lokalarekin, garajeen solairurako arrapalarekin, eta ur, argindar eta gas kontagailuen gelarekin, igogailuekin eta Intxaurtxueta auzoko bat edo hogeita hamaseigarren eta bi edo hogeita hamazazpigarren eskapeekin eta eskepeetako eskailerekin. Kuota: % 7,55.*

### **8.- IDAZKARITZA-KONTUHARTZAIETZAK 2019ko LAUGARREN HIRUHILEKOAN JARRITAKO ERAGOZPENAK.**

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzaitzak legezkotasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2019ko urriaren 1etik 2019ko abenduaren 31ra arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearren Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 https://munigex.net/r/eu/34/AAAABA6B2.HuA4

**2020/02/25  
Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno ordinario**



## **Idazkaritza-Kontuhartzaileta**

Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikuluan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:

### **KONTRATAZIO ARLOKO ERAGOZPENAK**

1.- Familia esku-hartzeari buruzko 849. zenbakiko espedientearen jarraipena egiteko LORRATZ ELKARTEARI esleitutako zerbitzuei egindako eragozpen txostena (2019OGAS0255) (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 183.3 artikulua urratzen da).

1.- Familia esku-hartzeari buruzko 1.383. zenbakiko espedientearen jarraipena egiteko LORRATZ ELKARTEARI esleitutako zerbitzuei egindako eragozpen txostena (2019OGAS0265) (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 183.3 artikulua urratzen da).

3.- Jubilatuen eguneko baziaria dela-eta AUZO LAGUN S.COOPRI esleitutako hornidura kontratuari egindako eragozpen txostena (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 183.3 artikuluaren araua urratzen da).

4.- ROCKALEAN antolatzeko Jesus Mari Galleki esleitutako kontratuari egindako eragozpen txostena (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 183.3 artikuluaren araua urratzen da).

### **DIRULAGUNTZA ARLOKO ERAGOZPENAK**

1.- Asociacion Tepez de Solidaridad con Chiapas elkarteri emandako diru-laguntzari buruzko eragozpen-txostena, emandako laguntzaren % 100 ez justifikatzeagatik fakturekin edo merkatuan balio bera duen dokumentuekin.

2.- ESKORIATZAKO GOITIBEREN ZALEEI emandako diru-laguntzari egindako eragozpen txostena, elkartea ez dagoelako egunean Gipuzkoako Foru Ogasunarekin.

### **OBLIGAZIOAK AITORTZEAREN ARLOKO ERAGOZPENAK**

**1.- KULTURA DEPARTAMENTUARI EMANDAKO KUTXA FINKOKO 7/2019 ZENBAKIKO AURRERAKINAREN 1. JUSTIFIKAZIOARI EGINDAKO ERAGOZPEN TXOSTENA (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)**

**2.- KULTURA DEPARTAMENTUARI EMANDAKO KUTXA FINKOKO 2/2019 ZENBAKIKO AURRERAKINAREN 1. JUSTIFIKAZIOARI EGINDAKO ERAGOZPEN TXOSTENA (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)**

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAABA6B2.HuA4>

**2020/02/25  
Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno ordinario**



## **Idazkaritza-Kontuhartzaileta**

**3.- KULTURA DEPARTAMENTUARI EMANDAKO KUTXA FINKOKO 3/2019 ZENBAKIKO AURRERAKINAREN 1. JUSTIFIKAZIOARI EGINDAKO ERAGOZPEN TXOSTENA (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)**

**4.- KULTURA DEPARTAMENTUARI EMANDAKO KUTXA FINKOKO 4/2019 ZENBAKIKO AURRERAKINAREN 1. JUSTIFIKAZIOARI EGINDAKO ERAGOZPEN TXOSTENA (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)**

**5.- KULTURA DEPARTAMENTUARI EMANDAKO KUTXA FINKOKO 1/2019 ZENBAKIKO AURRERAKINAREN 1. JUSTIFIKAZIOARI EGINDAKO ERAGOZPEN TXOSTENA (FAKTURAK FALTA DIRA EDO FAKTURA BATZUK EZ DATOZ BAT)**

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**9.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).**

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritako betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2019ko laugarren hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

## **10.- ESKORIATZAKO UDALAREN TITULARITATEKO HAINBAT UDAL ERAIKIN ETA LOKAL GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA ESLEITZEA.**

Udalbatzarrak, 2019ko abenduaren 17an egindako bilkuran, ESKORIATZAKO UDALAREN TITULARITATEKO HAINBAT UDAL ERAIKIN ETA LOKAL GARBITZEKO ZERBITZUA prozedura ireki bidez eta hainbat esleipen irizpideren arabera kontratatzeko expedientea onartu zuen. Kontratuari kalkulatutako balioa Europako atalasearen berdina edo handiagoa da, 148.087,80 euro urtekoa, balio erantsiaren zergari dagozkion 31.098,44 euro gehitu beharko zaizkionak. Kontratuak urtebeteko iraupena izango du, beste 4 urtez luzatu ahal izango dena, baina, iraupena, guztira, ezingo da 5 urtetik gorakoa izan.

Eskaintzak aurkezteko ezarritako epean ondorengo enpresek aurkeztu zitzuten beraienak:

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAABA6B2.HuA4>

**2020/02/25  
Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno ordinario**



## Idazkaritza-Kontuhartzaileta

- HEMEN GARBIKETAK S.L.U

Eskaintzen balorazioaren emaitza honako hau izan da:

IRIZPIDEA	PUNTUAK
Lanaren planifikazioa (40 puntura arte)	27
Kontrol sistemak	9
Derrigorrezko zerbitzuen eskaintza	45
HOBEKUNTZAK	5

Kontratazio Mahaiak 2020ko urtarrilaren 28an egindako proposamena ikusi da.

HEMEN GARBIKETAK S.L.U. enpresak errekeritutako dokumentazioa aurkeztu duenez eta 7.270,13 euroko bermea jarri, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** ESKORIATZAKO HAINBAT UDAL ERAIKIN ETA LOKALAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO kontratua HEMEN GARBIKETAK S.L.U. enpresari esleitzea ondoren adieraziko diren prezioetan eta baldintza administratibo partikularretan ezarritako gainerako baldintzen eta kontratistak bere proposamenean egindako zehaztasunen menpe.

Prezioak:

- DERRIGORREZKO ZERBITZUAK: 138.052,60 €/urteko (BEZ gabe), gehi % 21eko BEZari dagozkion 28.991,05 €.

Zenbateko hori, BEZ gabe, honela banakatzen da eraikinka:

Luis Ezeiza Herri Eskola	33.280,80
Haurreskola (biblioteca barne)	20.364,40
Kulunka Haurtzaindegia (eraikin oktagonal)	11.250,40
Ibarraundi Museoa	14.660,80

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAABA6B2.HuA4>

2020/02/25  
Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno ordinario



## Idazkaritza-Kontuhartzailletza

Zaldibar	3.018,40
Ludoteka	3.694,60
EPA	1.744,40
Elkarteen txokoa	1.293,60
Geltoki zaharra	1.156,40
Artxiboaren lokala	235,20
Kiroldegia	38.200,40
Kiroldegiko garajeak	627,20
Pilotalekua	7.487,20
Komun publikoak	1.038,70
Guztira	138.052,60

- AUKERAKO ZERBITZUAK:

ZENTROA	URTEKO KOSTUA GUZTIRA
Kultur Etxea	2.116,80
Musika Eskola	1.411,20
Udaletxea	3.822,00

- Udal eraikinen aukerako garbiketa bereziak

ZENTROA	ZERBITZUAREN KOSTUA
Ibarraundi	58,80
Zaldibar	39,20
Pilotalekua	235,20
Udal etxebizitzak (etxebizitzako)	235,20
Kultur etxea	39,20

**Bigarrena.-** Enpresa esleipendunak berak adierazitakoaren arabera, kontrata honetako langileak Gipuzkoako Eraikin eta Lokalen Garbikuntzaren Lan Hitzarmenaren pean egongo dira.

**Hirugarrena.-** Kontratacio honen esleipena eta formalizazioa kontratatzairearen profilean eta Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean -EBAOn- argitaratzea.

**Laugarrena.-** Derrigorrezko zerbitzuei dagozkien ondorengo gastuak onartzea 2020ko ekitaldiko aurrekontuen kargura.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAABA6B2.HuA4>

2020/02/25  
Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno ordinario



### **Idazkaritza-Kontuhartzaileta**

ERAIKUNTZA	AURREKONTU APLIKAZIOA	ZENBATEKOA
LUIS EZEIZA IKASTETXEA	0100.227.323.40.01	31.609,60
HAURRESKOLA	0100.227.323.30.01	19.341,80
KULUNKA IBARRAUNDI MUSEOA	0100.227.323.10.01 0100.227.333.20.01	10.685,46 13.924,61
ZALDIBAR ANTZOKIA	0100.227.333.30.01	2.866,83
LUDOTEKA	0100.227.337.30.01	3.509,08
EPA	0100.227.326.20.01	1.656,80
ELKARTEEN TXOKOA	0100.227.341.60.01	1.228,64
UDAL BILTEGIA	0100.227.153.40.01	1.098,33
ARTXIBOA	0100.227.332.20.01	223,39
KIROLDEGIA KIROLDEGIKO GARAJEAK	0100.227.342.20.01 0100.227.342.20.01	36.282,16 595,71
PILOTALEKUA	0100.227.342.10.01	7.111,23
KOMUN PUBLIKOAK	0100.227.171.00.01	986,54

#### **11.- ADIKZIOAK TRATATZEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIETAKO 2. ETA 3. ARTIKULUAK ALDATZEA.**

Udalbatzarrak, 2017ko apirilaren 27an egindako bilkuran, ADIKZIOAK TRATATZEKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK hasiera batean onartu zituen.

Oinari horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta 2017ko maiatzaren 5ean, eta jendaurrean egoteko epea igarota alegaziorik aurkeztu gabe, behin betikotzat jo ziren.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAABA6B2.HuA4>

**2020/02/25  
Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno ordinario**



## **Idazkaritza-Kontuhartzaileta**

Indarrean dauden oinarriei hainbat aldaketa egitea proposatu du prebentzio teknikariak orain, onuradunen ezaugarriak eta tratamendu emateko era aldatzen ari direlako.

Egindako proposamena ikusi eta eztabaideatuta, eta Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzailearen diktamenarekin bat etorri, Udalbatzak, aho batez, erabaki du :

**Lehenengoa.- ADIKZIOAK TRATATZEKO DIRU LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN** oinarietan honako aldaketak egitea 2. eta 3. artikuluetan:

### **2. Helburua**

*Hau jartzen zuen: “Adikzio arazoengatik tratamenduan dauden Eskoriatzako herritarrei EAEko tratamendu-zentro publiko edo hitzartutakoetarako joan-etorriak erraztea”.*

*Hau jarri nahi da: “Adikzio arazoengatik tratamenduan dauden Eskoriatzako herritarrei tratamendu-zentroetarako joan-etorriak erraztea, lehentasuna emanez EAEko tratamendu zentro publiko eta kontzertatuetara egiten diren bidaiei”.*

### **3.- Diru laguntzak jaso ditzaketen gastuak**

Hau jartzen zuen: *Laguntzak Eskoriatzatik tratamendu zentrora joateko bidaia gastuak ordaintzeko izango dira. Garraio gastutzat hartzen dira garraio publikoan nahiz norberaren ibilgailuan Eskoriatzatik tratamendu-zentrora egindakoak, baina ordaintzeko orduan bi faktore hauek hartuko dira kontuan: gehienez bi pertsonak (eskatzaleak eta laguntzaileak) hilean egindako bidaia kopurua eta garraio publikoko txartela erabilita bidaiaik duen kostua”.*

Eta honako hau jartzea proposatu da: *“Laguntzak tratamendu-zentrora joateko bidaia gastuak ordaintzeko izango dira. Garraio gastutzat hartzen dira garraio publikoan nahiz norberaren ibilgailuan Eskoriatzatik tratamendu-zentrora egindakoak; hala ere, laguntzak emateko, kontuan hartuko da gehienez ere bi pertsonak (eragindako pertsonak eta haren laguntzaileak, zentroak pertsona gehiago bertaratzeko eskatzen ez badu, behintzat) hilean egindako bidaia-kopurua eta bidaia horiek garraio publikoan eginez gero izango luketen kostua MUGI txartela edo parekoa erabilita, txartela erabiltzeko aukera dagoen kasuetan”.*

**Bigarrena:** Aldaketak jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez, nahi duenak erreklamazioak eta iradokizunak egin ditzan. Erreklamaziorik edo iradokizunik egonez gero, Udalbatzarrak erabaki beharko ditu. Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego, aldaketa horiek behin betiko onartutatzat joko dira erabaki berrikik hartu behar gabe, horrela aurreikusten baitu apirilaren 21eko 11/1999 Legeak aldatutako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49.c) artikuluak.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAABA6B2.HuA4>

**2020/02/25  
Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno ordinario**



## **Idazkaritza-Kontuhartzaileta**

### **12.- ESKORIATZAKO EH BILDUKO AURKEZTUTAKO ERAKUNDE-ADIERAZPEN PROPOSAMENA: MARTXOAK 8**

Hitza emanda, Eluska Irazuk, EH BILDUren bozeramaileak, mozioaren testuan proposatzen diren neurriak irakurri ditu. Hona hemen mozioaren testua hitzez hitz:

#### **MARTXOAK 8. ESKORIATZAKO EHBILDU UDAL TALDEAREN ERAKUNDE ADIERAZPENA**

ZIOA:

Urtetan mobilizazio ugariak egin eta bi greba feminista izan ondoren, kaleetako aldarria argia da, erabatekoak: gure gizarteak justizian eta demokrazian aurrera egin dezan, beharrezko da printzipio eta aldarrikapen feministak egitura eta politika instituzionaletan txertatzea. Beharrezko da eraldaketa erradikalak gauzatzea, erreprodukzio sozial jasangarria politika horien erdigunean jartzeko kapital-metaketa alde batera utzita, azken horrek gehiengo sozialen bizi-baldintzak prekarizatzen dituelako eta natura merkantilizatu eta esplotatzen duelako, etorkizuneko belaunaldien biziraupena arriskuan jartzearino. Beharrezko da, behingoz, emakume guztien indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea lehentasun politiko bat izatea. Beharrezko da instituzioek interpelazio hori gure gain hartzea, eta, gure ordezkaritzari erantzunez, herrialde honetako herritar guztiak —guzti-guztiak, salbuespenik gabe— hobeto bizi daitezen gure esku dagoen guzia egin dezagun. Ez digute eskatzen argazki gehiago egitea eta asmo-adierazpen soilak adostea, ezta desparekotasunen sustraiei heltzen ez dieten makillaje-politikak planteatzea ere: aitzitik, eskatzen digute guztionak diren baliabideak erabil ditzagun emakumeen eta gizonen artean dauden sakoneko desparekotasunei aurre egiteko, inor atzean utzi gabe, lan-errealityaren, arrazaren, sexu-desiraren orientazioaren, administrazio-egoeraren, adinaren eta beste edozein arrazoiren arabera sistemak ezartzen dituen diskriminazio eta zapalkuntza ugariei erantzunez.

Premiazko egoera horren aurrean, erabateko konpromiso bat hartu behar dugu gure udalerriko pertsonekin, berdintasunaren eta justiziaren alde. Eta konpromiso hori har dezakegu, bakar-bakarrik, zeharo demokratikoak diren prozesuak planteatzen baditugu, non instituzioetako “obeditzen gobernatuko dugun”, emakume zapatisten hitzak erabiliz. Eta bakar-bakarrik lortuko ditugu gure bizitzekin zerikusia duten erabaki guztiak bizi garen tokian hartzen baditugu, gure lurrardeetan, gure herrialdean; hau da, subirano izan bagaitezke eta gure erabakitzeko eskubidea baliatzeko moduan bagaude.

Euskal herritar guztiak erabakiak errespetatuko dituen esparru politiko eta instituzional bat eskatzeko eta eraikitzeko lanean jarraitzen dugun bitartean, subiranotasun feministak noranzko ugariko bide baten antzera agertzen da, emakume guztiak askatasunak berreskuratzeko eta eskubideak zabaltzeko prozesu baten antzera, non egunero-egunero definituko eta gauzatuko dugun gure burua gobernatzea zer egin nahi dugun eta gure herrialdearentzat zer bizi-baldintza nahi ditugun, guztiotzat, salbuespenik gabe, eta belaunaldi gazteenen etorkizuna hipotekatu gabe. Beharrezko da maila instituzional guztiotatik lan egitea, koordinatuta eta ikuspegi subiranista zabal batekin, eta lehentasunak identifikatuz politika feministetan aurrerapauso sendoak egiteko, eremu guztiak eskubide eta askatasunak zabaltzearen.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAABA6B2.HuA4>

**2020/02/25  
Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno ordinario**



## Idazkaritza-Kontuhartzailletza

Instituzioetan ere feminismoa egunero defendatzen eta eraikitzen delako, gaurko egunak balio behar du, halaber, Udal honek politika feministen alde hartu duen konpromisoa berresteko, emakumeen erabakitzeko eskubidea abiapuntua, euren bizitzak zeharka hobetzera zuzentzen diren arlo guztiak politika feministekin, azpimarra berezia jarriz egoera zaugarriago batean dauden emakume-kolektiboengan.

Horregatik guztiagatik, Eskoriatzako Ehbildu Udal taldeak, ondorengo neurriak **elkarlanean** hartu ditzagun proposatzen dizkie Eskoriatzako Udalbatzari:

1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorraren bidean aurreratzeko neurri sorta bat garatzea udalerrian, beharrezkoak izango diren baliabide guztiak bermatzu:

- Udal aurrekontuen azterketa egitea, genero ikuspegitik, Udalak hartu dituen konpromisoen bideragarritasuna bermatzu.
- Udal kontratacio publikoan klausula sozial eta genero klausulak txertatzeko plan progresibo bat diseinatzea eta abiatzea.
- Udalerriko emakumeek egindako ekarpena balorean jartzeko memoria historikoa lantzea.
- Genero ikuspegi batetik udalerriko zaintzen errealtitatearen azterketa egitea eta errealtitate hori hobetzeko neurriak martxan jartzea, besteak beste, ondokoak jasoz:
  - Etxez Etxeko Laguntza zerbitzua ematen den balditzak eta lan baldintzak duintzeko zuzenduriko neurriak proposatzea eta abiatzea.
  - Familian egiten diren zaintzen analisia (ume eta mendekotasuna duten pertsonena), gabeziak, bete gabeko beharrak eta hobetu beharrekoak identifikatzu eta aurre egiteko neurriak abiatuz, kasu:
    - Zaintzen beharrei erantzuteko udal espazioak egokitzea.
    - Zaintzarako pertsonen kontrataazioaren gainean laguntha ematea.
    - Zaintza behar edo eskaintzen dituzten pertsonen arteko harremanak erraztea.
    - Nagusiki emakumeek egindako zaintza lanei balorea emateko sentsibilizazio jarduerak bultzatzea, baita gizonek erantzunkidetasunaren gainean kontzientzia hartzeko jarduerak ere.
    - Zaintza rolen gaineko emakumeentzako ahalduntze jarduerak abiatzea.
    - Gazteei zuzendutako rol berdinaleen gaineko hezkuntza jarduerak bultzatzea, ahalduntze ikuspegi batetik.

2. Identifikatu diren Udalerriko emakume zein kolektibo feministek parte hartzeko bideak irekiko dira, identifikatu diren jarduera guztien diseinutik ebaluazioraino parte hartu ahal izateko, euren iritzia kontuan hartuz.

Ondoren, honako hauek hitz egin dute:

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAABA6B2.HuA4>

2020/02/25  
Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno ordinario



## Idazkaritza-Kontuhartzaileta

\*Josu Ezkurdia:

Guk, egiten duzuen proposamena eskertu eta baloratzen dugun arren, mozioaren aurka bozkatuko dugu, bi arrazoirengatik. Lehenengoa, eta behin baino gehiagotan esan dugu, iruditzen zaigulako EH BILDUK etxeko lanen zerrenda bat jarri nahi diola gobernu-taldeari, guk egin ditzagun lanok, eta uste dugu ez dela bide egokia etxeko lan zerrenda bat aurrean jartzea. Gainera, ez da onargarria norbaitek bere buruari etxeko lanak jartzea. Eta bigarrena, proposatzen diren neurriak balioetsi eta eztabaидatu egin behar direla uste dugulako eta horretarako bide egokia ez delako osoko bilkurara ekartzea; gure ustez, batzorde batean eztabaидatu behar dira, bertan izaten direlako ere gai horretako teknikariak. Beraz, eskerrik asko proposamenagatik, baina aurka bozkatuko dugu.

Ez du beste inork hitz egin, eta bozkatu egin da. Aurrak 6 botorekin (EAJ/PNVko 5 eta EEEko 1) eta aldeko 4 botorekin (EH BILDU), ez da onartu mozioa.

### **13.- ESKORIATZAKO EAJ-PNV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: EMAKUMEEN MOBILIZAZIOAK. Emakumeen ahalmena mundua aldatzeko.**

Hitza eman ondoren, Maite Uribek mozioaren testua irakurri du. Hona hemen transkripzioa:

#### ***EMAKUMEEN MOBILIZAZIOAK. Mundua eraldatzen duen emakumeen boterea.***

1952an martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Eguna ezarri zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak (NBE). M8ak emakumeen "grebak" oroitzen ditu, historian zehar euren eskubide laboral, ekonomiko, politiko eta sozialak aldarrikatu dituztenak. Horrela, legeetan, gizartean eta kulturan aldaketak lortu dira, eta gizartean berdintasuna eta demokrazia-maila handiagoak lortu dira.

Hala ere, emakumeen borroken garaia ez da amaitu. Mundu osoan eta gure tokiko komunitateetan oraindik ere emakumeenganako bereizkeriak eta ezberdintasunak daude, emakume izate hutsagatik. Bereizkeria hori beste batzuekin gurutzatzen da: klase, etnia, adina, kultura, sinesmenak, migrazio-estatusa, sexu-orientazioa, genero-identitatea edo gaitasunak, besteak beste.

Hori dela eta, **berdintasun mezu bakarra aldarrikatu behar dugu gizarte bateratua bezala**. Eta horregatik, instituzio publikoek mezu hori gureganatu behar dugu, ondorengo helburuak lortzeko:

- Genero-harremanak eraldatzea gure udalerrien eta gure administrazioen bitztan;
- Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak errotik kentzea eta egiturazko indarkeria horren biktimak erreparatzea;
- Baldintzak eta aukerak eraikitzea izaera guztiako emakumeek tokiko bizitzako ekonomian, gizartean, politikan eta kulturan parte hartzeko;
- Diskriminazio mota guztien aurka borrokatzea;
- Bizitza erdira ekarriko duten gizarte-antolakuntza erantzunkideak diseinatzea.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAABA6B2.HuA4>

2020/02/25  
Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno ordinario



## Idazkaritza-Kontuhartzaileta

Tokiko euskal gobernuok konpromiso horiek gure herri eta hirietan egia bihurtzeko politikak diseinatu eta kudeatu behar ditugu, eta horrexegatik, Eskoriatzako Udalak **konpromiso irmoa adierazi du berdintasunezko gizarte inklusiboa eraikitzen laguntzeko, pertsona guztien eskubideak eta parte-hartzea bermatuko dituena tokiko bizitzan.**

Irakurketa amaituta, Eluska Irazuk hartu du hitz egiteko txanda: guk ez dugu mozioa onartuko, uste baitugu, imajinatuko duzuenez, ez dela nahikoa, uste dugu, eta herriak hala eskatzen du, konpromiso gehiago hartu behar direla udal mailan. Kolektibo batzuek inplikazio handiagoa eskatzen digute, eta, zentzu horretan, mozioa motz geratzen da gure ustez. Gainera, ikusi dugu zuen mozioa Eudelenaren "kopiatu-itsatsi" bat dela, aldaketaren batekin. Eudelena aurkeztuko zenutela uste genuen, eta motz samar zegoela iruditzen bazitzaigun ere, gai hain oinarritzko eta funtsekoak jasotzen dituenez "ezetz" esaterik ez genuen, alde bozkatzea pentsatzen genuen. Baino, aurkezten duzuen mozioa ez dator bat Eudelenarekin, murriztua dago. Eudelen testuan jasotzen diren neurri guztiak falta dira, eta aurkezten zaigun mozioa eskas gelditzen da. Uste dugu mozio honetan esaten dena baino zerbait gehiago egin behar dugula, bertan esaten dena orain arte egin denarekin gaindituta egon behar duela suposatzen da.

Eztabaida amaitu ondoren bozketa egin da. Aldeko 6 botorekin (EAJ/PNVko 5 eta EEEko 1) eta aurkako 4 botorekin (EH BILDU), mozioa onartu da.

### **14.- GALDE-ESKEAK.**

Hitza emanda, eta Zaldibarko zabortegian hildako langileen senideei elkartasuna adierazi ondoren, Ander Errartek adierazi du bere taldeak, Zaldibarko gertakariaren ondoren, Eskoriatzako airearen kalitateari buruzko galdera batzuekin idatzi bat prestatu eta bidali ziola alkateari joan den otsailaren 20an. Jarraitu du esaten: erantzunik jaso ez dugunez, galdera horiek osoko udalbatzarrera ekartzea erabaki dugu, eta honako hauek dira: 1.- airearen kalitateari buruzko neurketak egin dira Aretxabaletan, Eskoriatzan edo Arrasaten? 2.- Egin badira, zein izan da emaitza? 3.- Egin ez badira, ba al dago egiteko asmorik? Galdera horiek alkateari zuzentzen dizkiogu, Udalaren izenean erantzun dezan eta herritarrei mezu lasagarri bat helarazteko asmoz, ikusi baitugu bizilagun asko kezkatuta daudela gaiarekin. Eta are gehiago, kontuan hartuta, kutsadura-arriskua, esaten denez, 20 km<sup>2</sup>-ko erradioan hedatzen dela eta Eskoriatza, gutxi gorabehera, 16 km<sup>2</sup>-ko erradioan dagoela.

Josu Ezkurdia: Zaldibarren kontu horri guztiari dagokionez, eta EH Bilduren jokoa ikusita horri buruz, esan behar dugu lotsagarria iruditzen zaigula bere jarduna. Uste dugu politika egiten ari dela. Duela astebete eman ziren Legebiltzarrean gai horri buruzko azalpen guztiak, eta EH Bildu hauteskundeei begira erabiltzen ari da gaia.

EH Bilduk zer nahi duen ez dakiela eta beraiek ez dutela arreta Euskadin, Eskoriatzan baizik esan ondoren, Ander Errartek berriz esan du airearen kalitatearen neurketa egingo ote den jakin nahi dutela, kezka hori transmititu zaielako eta beraiek ere, talde gisa, kezkatuta daudelako. Errepikatu du ez dakitela gaia nola erabiltzen ari ote diren beste arlo batzuetan, eta interesatzen zaien gauza bakarra Eskoriatzan airearen kalitatea ona den edo ez jakitea dela.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAABA6B2.HuA4>

2020/02/25  
Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno ordinario



## **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

Josu Ezkurdia: lehen esan dudana errepikatuko dut: ez dut zuen kezka sinesten, bai gaia politikoki nola erabiltzen duzuen.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:30ean amaitutxat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAAABA6B2.HuA4>

**2020/02/25  
Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno ordinario**



## **Idazkaritza-Kontuhartzaileta**

### **1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.**

Por encontrar conforme son aprobadas las actas de las sesiones celebradas en fecha 26/11/2019, 17/12/2019 y 27/01/2020.

### **2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.**

Se da cuenta de las Resoluciones de Alcaldía dictadas hasta el día 18 de febrero de 2020

De forma expresa se informa sobre las aprobaciones de los expedientes de modificación de créditos Nº 27/2019 y Nº 1/2020.

### **3.- ACUERDO SOBRE INCREMENTO DE LAS RETRIBUCIONES DE LOS EMPLEADOS MUNICIPALES.**

Al amparo de lo contemplado en el art. 3 del Real Decreto-Ley 2/2020, de 21 de enero, por el que se aprueban medidas urgentes en materia de retribuciones en el ámbito del sector público, y de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Hacienda y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

3. Aprobar, con efectos 1 de enero de 2020, un incremento del 2,00 % respecto de las vigentes a 31 de diciembre de 2019, de las retribuciones del personal al servicio de este Ayuntamiento
4. Hacer efectivos dichos incrementos en la nómina correspondiente al mes de marzo.

### **4.- APROBACIÓN DEL PLAN NORMATIVO 2020.**

En cumplimiento de lo previsto en el art. 132 de la Ley 39/2015, por unanimidad se acuerda que la relación de ordenanzas y/o reglamentos que este ayuntamiento prevé aprobar o modificar sustancialmente en el 2020 es la siguiente:

- ORDENANZA REGULADORA DEL SERVICIO DEL CICLO INTEGRAL DEL AGUA DEL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA

A través de este ordenanza se pretende regular las relaciones entre el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa y las personas abonadas del Servicio de Aguas, en aquellos municipios en los que el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa es titular del servicio, señalándose los derechos y obligaciones básicas de cada una de las partes.

<https://munigex.net/r/eu/34/AAAABA6B2.HuA4>

**2020/02/25  
Ohiko Osoko Bilkura  
Pleno ordinario**



## **Idazkaritza-Kontuhartzaileta**

### **5.- DEVOLUCIÓN DE AVAL PRESENTADO PARA RESPONDER DEL CONTRATO-2015 DE PRESTACION DEL SERVICIO DE CONSERVACIÓN, MANTENIMIENTO Y LIMPIEZA DE ZONAS VERDES, PARQUES, JARDINES Y ARBOLADOS DE PASEOS EXISTENTES EN EL TERMINO MUNICIPAL DE ESKORIATZA (SERVICIOS OBLIGATORIOS Y SERVICIOS OPCIONALES).**

